




BETERRIKO ALDIZKARIA




AIURRI

1996eko urtarrilaren 12a. 28. zenbakia. Dohain banatzen da.



*Alkoholik gabe
bizitzen ikasi*

ALLURRALDE UDAL KIROLDEGIA



ANDOAIN

Tfnoa.: 30.01.47

1996eko ORDUTEGIA

NEGUA:

- ASTELEHENETIK OSTIRALERA
Igeriketa : 7.00 - 13.00 eta 15 - 21.00
Kiroldegia: 7.00 - 13.00 eta 15.00 - 22.15
- LARUNBATAK: 9.00 - 13.00 eta 16.00 - 20.00
- IGANDEAK: 9.00 - 13.00

UDA (uztaila eta abuztua):

- ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 7.00 - 13.00 eta 16.00 - 21.00
- LARUNBATAK: 9.00 - 13.00 eta 16.00 - 20.00
- IGANDE ETA JAIEGUNAK: Itxita



KIROL EKINTZAK

IKASTAROAK:

Mantenimenduko soinketa / Fitness / Pretakuntza fisikoa / Aerobic / Igeriketa (ikastea) / Aquagim.

MANKOMUNATUTAKO ZERBITZUAK

Kirol instalazioetako abonatuak BURUNTZALDEKO Udaleko edozein kirol instalazio erabil dezakete, lekuan lekuko ordutegia eta arauak errespetatuz.



1996 URTERAKO TASAK

Abonoak	Seihilabetekoa	Urtekoa
•FAMILIARRA	10.800	19.000
•BANAKAKOAK	7.100	12.000
•ADIN TXIKIKOAK (18 urtez beherakoa)	5.400	9.000
•LANGABETUA	5.400	9.000
•PENTSIONISTA	5.400	9.000

SARRERA

18 urteik gorakoak	550
18 urteik beherakoak	250

ORDU- ERRESERBAKO TARIFAK

Jokalekua	2.300
Jokalekuaren 1/3a	850
Jokalekuaren abonatu ez direnentzako	4.400
Squasha	500



GORPUTZ ZAINKETAKO ARETOA

Sauna-hidromasaiako saio 1	375
Sauna-hidromasaiako 10 saio	3.000
Solairum-eko saio 1 U.V.A	475
Solairumeko 10 saio	3.800
Masaia	1.400

* Bazkide ez denak sarrera ordaindu beharko du

IKASTAROAK

3 egun astean:	Igeriketa	Bestelako ekintzak
IKASTURTE OSOA	19.600	16.275
IKASTURTE ERDIA	11.500	9.345
HILEKO IKASTAROAK	3.300	2.750
2 egun astean:		
IKASTURTE OSOA	15.000	12.200
IKASTURTE ERDIA	9.020	7.200
HILEKO IKASTAROAK	2.300	2.100



1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joxin Azkue: "Moro zikinak!"
2. **INKESTA.**
Eta zuk, ze opari jaso duzu Gabonetan?
3. **ADUNA.**
Bakea lortzeko borondateen kontratua.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Utzi gaitu Roger Wesney-k.
Eguneko Egoitza martxan da.
II. Gazte Aste arrakastatsua.
7. **ASTEASU.**
Iparraldeko haurrak herrian.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**
E. Velazquezen pintura eraskusketa.
Billabonako jubenilak.
10. **ZIZURKIL.**
Mohamed eta Otman marokkoar artistak.
11. **ENPRESA.**
MBE SOTKON TEKNIKPLAS enpresa berria.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
A.A.: Alkoholiko askoren salbamena.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Pilar Rodriguez aktorezarekin solasean.
- 16-17. **KULTURA**
Juan Krúz Igerabide: haurren poeta.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31
Babesleak: Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.
Erredakzioa: Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oartzabal
Argazkiak: Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.
Publizitate arduraduna: Mailu Ibarbia. **Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legedordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614
Tirada: 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



MORO ZIKINAK!



JOXIN AZKUE

Gure etxea Zizurkilgo herri-gunetik nahikoa urruti badago ere, ez da harritzekoa aldean behin Joxemari alfombra saltzaile horietako bat gureganaino etortzea, ez eta inguruko gainontzeko baserrietaraino ere. Eta niri, egia esan, errespeto handia ematen didate. Zer esan, bada, beren etxea, beren familia, beren aberria, beren mixeria utzi eta ogi pixka bat irabazteko *kasadio-sera* etorri behar izan duten inmigrante horiei buruz? Arabiarak bakarrik, bost bat mila omen direla irakurri berria dut Euskal Herrian bizi direnak, legalki gutxi batzuk, ahal duten bezala gainontzekoak.

Lehengo batean, marokkoar horietako bat sartu zen gu geunden tabernara, bizkar gainean zeramatzan alfombrak saltzeko asmotan (oso itxaropen gutxiarekin, hori bai). Atetik kanpora itzuli bezain agudo, "Betepakasa, moro zikina!" boimitatu zion barraren gainean erdi etzanda zegoen zerbezaz betetako tripa handi urdai batek. Eta hori esan eta gero, satisfazio aurpegi irribartsu batekin begiratu zigun gainontzekoei, berebiziko balentria edo egite handia erakutsi izan balu bezala. Tabernan jende mordoska ginen, eta inork ez genion deus ere esan. Batzuek, berak zioenarekin bat etorriko zirelako agian, barre txiki bat egitera ere iritsi ziren; besteek berriz, gisa horretako australopitekus batekin giza-sentsibilitateaz hitz egitea alfer-alferrik zelakoan, bere emazteaz errukitu ginen.

Gertakizun honek euskaldunon arrazakeriaz pentsatzeko aukera eman zidan. Ziur nago banaka batzuek direla bere burua arrazistatzen jotzen duten euskaldunak, eta inor gutxiri gustatuko zaizkiola European zehar datozkigun gehiegikeria hots horiek: han etxe barruan ez dakit zenbat atzeritar ere omen dituztela, beste hartan egurtu, halako lekutan herdoildutako txapa zikinez egindako txaboletan bizi omen direla... Eta gu geu, zer? Gu ez, guk ez genuke sekula santan horrelakorik egingo! Gu ez gara arrazistak! Nola bada!

Euskal Herriak, bizileku dugun bere hegoalde honek behintzat, ez du atzerriko inmigrazioaren fenomenorik bizi oraindano. Gure artean ez da txinatar, beltz edo magrebiar askorik ikusten, eta dauden gehienek ere bizimodu propioa darimate, talde titkitan, ghettoetan bailira. Oso gutxi nahasten ditugu geure eta beraien bizimoduak, sineskerak, ohiturak... eta are gutxiago odolak. Horregatik uste dugu arrazistak ez garela. Baina, egi-egitan, zer gertatuko litzaziguke gure alaba beltz batekin bizitzen jari dela jakingo bagenu? Edo zer irudituko zitzaigun, semeak, oporretan ezagutu zuten neska tailandiar hura, gure erraina bihurtzea nahiko lukeela esango baligu?

Ezin uka euskaldunok desberdinak garela, ez besteak baino gutxiago, ezta ere gehiago. Geroz eta kanpotar gehiagoren ondoan bizitzea tokatuko zaigunez, lortuko ote dugu, euskaldun bezala, gure buruarekiko aldarrikatzen ditugun errespetoa eta eskubide maila berberak onartzea eta esijitzea beste gainontzekoentzat? Edo Le Penek txapela jantziko du? Geroa lekuko!



Aldizkari honetako Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honetako Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren laguntza jaso du

ETA ZUK, ZE OPARI JASO DUZU GABONETAN?

Opariak egiteko eta jasotzeko garaia izaten dira Eguberri egunak: Gabon gauean batzuek; Errege egunean beste batzuek. Batzuek nahiago dute ezusteko opariren bat jasotzea; beste batzuek alde zurretik eskatzen edota galdetzen dute, ezustearen ezusteaz, badaezpada, inongo arazorik ez

izateko. Normalean etxeko txikienak izan ohi dira opariak jasotzen zorte handien izaten dutenak. Izan ere, beraiek jartzen dute egun horietan ilusiorik handiena, eta ordezkatzan dute askotan helduek galdutakoa. Eta zuk, batere oparirik jaso al duzu Eguberrietan?



Enrique Rebollo, jubilatua. Andoain.

Nire edadean ez da jadanik opari asko jasotzen, hala ere esango dizut: galtzerdi batzuk eta alkondara bat oparitu dizkirate. Gure etxean Gabon gauean banatzen ditugu opariak.

Seme-alaba guztiak kanpora ezkondata dauzkat, baina egun horretan etxean biltzen garenez, aprobeixatu egiten dugu.



Nieves Martín, ikaslea. Zizurkil.

Errege egunean jaso ditugu Gabonetako opariak eta urtean zehar berriz, urtebetetze egunean bakarrik jasotzen ditut. Ez dut opari asko jasotzen eta arropa eta antzeko opariak ditut gustokoen. Ezusteko opariak jasotzea baino nahiago ditut gustoko gauzak jasotzea.



Amagoia Zabala, ileapaintzailea. Asteasu.

Aurten Olentzerok eta Erregeek ekarri dizkirate opariak, asko gainera. Batzuetan Errege Egunean egiten ditugu opariak baina besteetan berriz, lehenago jasotzen ditugu, izan ere, askotan arropa oparitzen didate eta nire gustokoa izateko alde zurretik ikusi eta aukeratu behar izaten baitut.



Oskar Gómez, ikaslea. Andoain.

Olentzerok oso txirringa polita ekarri dit. Erregeak ere ongi portatu dira. Eguberriak oso ongi igari ditut: familian oso gustora igaro dugu Gabon gauean eta Gabon Zahar gauean.



Itziar Garmendia, langilea. Billabona.

Erregeak etorri dira gure etxera. Orain gauza gutxi jasotzen ditut, baina gustoko dut opariak egin eta jasotzea. Hala ere ohituragatik egiten ditugu opariak; galdu dugu umetan genuen ilusioa.



Nerea Elola, ikaslea. Aduna.

Olentzerotan eta Erregeetan jaso ditut opariak. Aurten patinak, irratikaseta eta aterkia jaso ditut besteak beste. Behar dudana edota atsegin dudana ekartzen didate eta horrekin moldatu behar izaten dut. Gehiago jasotzea gustatuko litzaidake.

Albanileria
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

FRANCISCO MENDIKUTE HARATEGIA

KaleTxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN


MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162
ANDOAIN

HIRIGUNE BERRIA

Etxebizitza berriak eraiki eta ingurunea urbanizatu ondoren Adunako hirigunea erabat berrituta gelditu da. Hirigunea lau auzo ezberdinetan banatu dute eta auzo bakoitzeko etxebizitza bakoitzari zenbakia jarri diote. Neurri horrekin hirigunea txukunago edukiko dute.

Herriko plaza izenez izendatzen dira plaza inguruko etxeak, eskola eta udaletxea. Hamar etxebizitza edota baserri daude auzo horretan. *Belkoin* bidea deitzen zaio auzoan berriz, zazpi etxebizitza daude eta hirigunetik Goiburu auzora joateko bidean daude guztiak. *Elordi* plaza aldez, babes ofizialeko etxebizitza berriek osatzen duten auzoari deitzen zaio eta bost bloketan banatzen dira etxebizitza guztiak. Azkenik *Elutse kalea*-n beste bost etxebizitza biltzen dira eta kale horretan egin dira aparkalekua eta errepede berria.



BAKEA LORTZEKO BORONDATEEN KONTRATUA SINATU DUTE

Elkarrik aurkeztu du agiria

Joan den hilean Udalbatzak Elkarri taldeak aurkeztutako agiria onartu zuen. Alkateak aurkeztu zuen bakea lortzeko borondateen kontratuaren berri ematen zuen agiria. Sei zinegotzik baiezkoa bozkatu zuten eta zinegotzi bat abstenitu egin zen.

Egungo gizarteko arazoei irtenbide demokratikoak bilatzeko eta mota guztietako indarkeriari amaiera jartzeko borondatea sinatu zuten besteak beste. Horrez gain, distentsiorako eta elkar ulertzeko gune sozial eta politikoak osatzeko asmoa onartu dute.

Elkarrizketaren bidea

Irtenbide elkarrizketatuak bilatzeko nahia eta Euskal Herriko herritarren gehiengoak nahi duen etorkizuna onartzeko asmoa onetsi dute zinegotziek. Gizakion banakako eskubiak zein kolektiboak errespetatzearen aldekoa da, halaber, agiria.

Azkenik, Iparraldeko, Nafarroako eta Euskal Autonomi Elkarteke harreran insituzional zein politikoak bateratuagoak izateko asmoa eta auziak eragin dituen ondorio mingarriak gizabidez hartzeko nahia sinatu dute.

ETXEBIZITZA BERRIEI BURUZKO OHARRA

- Babes ofizialeko etxebizitzekin batera eraiki dituzten hogeita bat garajeak saldua daude dagoeneko.
- Udalak etxebizitza gehiago eraikitzeko egitasmoa du, eta beharbada, babes ofizialekoak izango dira. Herritarren beharrak eta nahiak ezagutu eta gero erabakiko dutela adierazi digu Jabier Zabala alkateak.



XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Ondarreta, 9 - TELF. 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

Joxe Mari
ITURRALDE
ZURGINDEGIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

ADUNA - ☎ 69 20 81



BORDA
Gatetxea

A N D O A I N



GOSARIAK - APERITIBOAK
BILARRA
GIRO EDERRA!!

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN

UTZI GAITU ROGER WESNEY-K

Kirolaren eta adiskidetasunaren txapel-dun izendatu dute



Joan zaigu Roger, Blan-ki emaztea eta Lian Ibai, Joshua Jon eta Kate Estibaliz hiru seme-alabekin batera Eguberri betean Zelanda Berrira. Beretarrekin ados-tutako erabaki latza izan da, eta haatik doa alaitu jaiote-rrira. Gizon hau ezagutzeko pribilegioa izan dugunok ordea, egunak pasa ahala, hara non hasi garen senti-tzen berak utzi duen hutsa Andoainen...

Han-hemen jasotako hamaika oroigarriek hegaz-kinera Olentzaro baino zakubeteago igotzera era-gin zioten. Baina oparien gaintik, Rogerrek bazera-man bihotzean aireportuko zamagailuz neur ezin zite-keenik ere: Euskal Herriko bizialdian bera ezagutu du-ten hainbat pertsonen esti-mu eta aitormena.

Squash-eko Kaskabel-tzako taldekideek ere ome-nalditxo xumea eskaini ge-nion egun betez. Ondoren-go afarian aitortu zigunez, bertan seme-alaben jaiotzen pareko une sentikorak bizi izan omen zituen. Horren errudun, bere ohorezko au-rreskua dantzatzea eta txapela jartzea izan ziren. Ze-remonia horrek asmo be-rezia baitzuen: kirolaren eta adiskidetasunaren txapel-dun izendatzea.

Kronikatxo honek edu-

ki lezake falta zaigunaren izana mitifikatzeko arrisku-rik. Baina Rogerrengandik hurbil ibili izan zen orok baieza dezake hauxe: pistaz barrutik bezain handia zela pistaz kanpo ere.

Bere gorputz-arpegjerak zuen aire anglosajoiari es-ker, askotxok irudikatuko zuten Londongo kaleetan City-ko burtsa bidean, exe-kutibo tradizional baten tra-zaz. Baina ezin okerrago ibili. Orain zortzi urte heldu zenetik, aterki, maleta eta kapela ponpoxoa bere inge-les akademia identifika-tzen zuen logotipoari, txo-ritxo mokoluzeari zintzilika-tu zizkion. Eta agudo ager-tu zitzaigun euskal herritar soilez, bihotz bilutsik Andoaingo bizitza sozialean.

Berarekin hizketan jar-dun, eta bibote eta hortz xal-takorretatik orain jasoko zenuen irribarre naturala, orain hitz bakan goxoak. Horiek zituen tresnarik era-ginkorrenak pertsonen ho-rondateak konkistatzeko. Bere-berea zuen sen peda-gogiko horrek herriz, beti bultzatzen zion zeukana eman eta zekiena erakuste-ko prest egotera, edonor ze-torkiola ere. Karisma xar-makorra zuen, bai, soilik pertsona aukeratu bakanei dagokien hori bera.

Aitortu beharko dut honezkerok, pertsonalki beste pena txikirik badaukadala! Canal Pluseko Robisonen antzera, hizkera xelebraz zerabilen gaztelania. Euska-rarekin hasi berria zen hor-rokan. Ze erremedio, bada!, gure hizkuntzari emango zizkion ostikada farregarriak aditzeko gogoz geratu beharko gara!

Xabier Lasa

ESKULTURA KONPONDUKO DUTE

Manuel Lekuonaren oroimenez Iñaki Olazabal eskultore andoindarrak egindako lana

Orain dela gutxi arte udaletxe atzealdeko enpa-rantzan egon da kokatuta. Hiru urte badira hon-datuzutela eta geroztik kalte gehiago eragin dizkiote. Gaur egun udaletxean daude eskultu-aren puska batzuk eta Iñaki Olazabal eskultoreak konpontzeko bidean jarri du Kultura batzordeak.

Kultura batzordeburu den Garbiñe Egibarrekin hitz egin dugu, eta konponke-ta lanekiteko egileak aurreratuko dien aurre-kontuaren zain daude.



Konpondu eta gero osatuta jarriko dute berrira, baina batzordeburua ez da inongo hesirik edota babesteko beste mediorik jartzearen aldeko: "Jendeak normalean ez du begirune handirik agertzen ulertzen ez dituen gauzekiko, baina ohitu beharra dago, ikutu behar baldin bada ikutuz, baina hondatu gabe", adierazi digu. Jendeak hondatu du eskultura, eta azken egunotan umeren batek ere hartu du ezusteren bat, eskultura gainera erortzeko zorian egon denean.

Euskal idazle eta erlijioso oiartzundarra izandako Manuel Lekuonaren omenez egin zuen Olazabalek eskultura orain dela zortzi urte antolatutako ekitaldi kultural batzuen egitarauari jarraituz. Manuel Lekuona ikerlari eta idazle oparoa izateaz gain, Euskaltzale elkarte-kide izan zen, euskal aldizkarietako kolaboratzaile, eta euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko lehendakari izatera iritsi zen.

J.A. RODRIGUEZ RANZEN HIRUGARRAREN HISTORIA LIBURUA

Jose Antonio Rodríguez Ranz, "Txirik", EUTGko Unibertsitatean historia irakasleak, hirugarren historia liburua argitaratu berri du. "Tolosa euskal abertzaletasunaren bihotza. EAJren historia Tolosan" liburuan EAJ-PNVk Primo de Riveraren diktadura garaitik hasita II. Errepublikararte zehar eta gerra eta frankismo artean Tolosan izandako ibilbidea aztertu du. Horri guztiari Errepublikara garaiak hauteskunde emaitzak gehitu dizkio.

Jose Antonio Rodríguez lanaren egile eta koordinatzaile izan da aldi berean beste bost lagunekin batera eta bi urtez landutako lanaren emaitza da liburua. "Guipuzcoa y San Sebastian en las elecciones de la II. República" eta Jon Unanue Lópezekin egin eta Jesus Maria de Leizaola akzesit saria jasotako "Hizkuntz eskakizunak Gipuzkoako toki Administrazioan II. Errepublikaren garaian" izan dira aurreko bi argitalpenak.

EGUNEKO EGOITZA MARTXAN DA

Astelehenetik ostiralera 9.30etatik 17.30etara

Ireki berri dute Eguneko Egoitza Ambrosia Gizarte Zerbitzuen Egoitza dagoen eraikuntzan bertan. Familian edo bakarrik bizi diren zaharrei eskaintzen zaie ia egun osoko zerbitzua. Etxeetatik egoitzarainoko garraioa egiteaz Gurutze Gorria arduratuko da. Aurten bertan ongizate bulegoak bertara eramatea dago pentsatuta.

Momentuz gehienez hamabost laguntzako zerbitzua eskaintzeko pentsatuta dago egoitza, geroago, eskarien arabera, beharbada, eskaintza zabaldu egingo delarik. Sei andoindarrek eman dute izena, eta Urnieta eta Hernaniko beste bi lagun eskaria aztertzen ari



dira ongizate arduradunek, izan ere, eta Ongizate batzordeburu den Elena Arribillagak azaldu digunez, hasiera batean zerbitzuak eskualde osoan zabalduko zirela aurrikusita zegoen.

Zerbitzu osoa

Familian edo bakarrik bizi diren pertsonak izango dute bertan egoteko aukera. Zerbitzu osoa eskainiko zaie: garbiketa, bazkaria, terapia, aisia, rehabilitazioa, osasun arreta eta abar. Zerbitzuak bi helburu nagusi ditu: zaharrari alor guztietan behar

bezalako arreta eman eta familiari alternatiba egokia eskaini. Garraioa egoitza ireki baino ordu erdi lehenago egingo du Gurutze Gorriak. Erabiltzaileek prezio ezberdina ordaindu beharko dute diru sarreraren eta gaitasun mailaren arabera.

Diputazioak emandako dirulaguntzari esker aurten zerbitzuaren kostoa erdira murriztu da. Hurrengo urtean dirulaguntzarik egongo ez balitz ere, erabiltzaileak bikoitza ez duela ordaindu beharko ziurtatu digu zinegotziak.

II. GAZTE ASTE ARRAKASTATSUA

14-16 urte bitarteko 500 gaztek baino gehiago hartu dute parte

Herriko kirol, kultur eta asialdi taldeen partehartze handia eta gazteen beraien ekimena eta partehartzea izan dira Gazte Astearen arrakastaren giltza. "Ikusi dugu Andoaingo gazteak ez direla horren pasiboak, eta motibatuz gero, ekimen handikoak direla", esan digu Carlos Argilea hezitzaile sozialak eta ekimenaren bultzatzaileak.



Herriko gaztetxoek gain oraingo honetan ingurukoak ere hurbildu dira, eta baita Frantziako La Rochelle aldeko gazte talde bat ere, andoindar batzuk iaz bertan egin zuten egonaldia ordainetan. *Graffiti*, dantza, arrantza, eskulan, argazki eta antzerki tailerrak izan dira aurtengo ekintza berrietako batzuk eta oso harrera ona egin diete gazteek. Futbola, frontoiko kirolak, mahai-jokoak, olinpiadak, *play-back* saioa eta beste ekintza batzuk egin dituzte.

MENDILUZE ETA SOROZABAL OMENDU DITUZTE

Udalak omenaldi apal bat eskaini die Gipuzkoako bertso txapelketan ezezik, orain arteko bide luzean ere, bi bertsolari andoaindarrek egin duten lanagatik: Aitor Mendiluze Gipuzkoako txapelkun berria eta txapelketa osoan zehar ezin hobeto aritu den Jokin Sorozabal.

Bertsolariek bertsotan erantzun zioten Errege egun bezperan opari gisa jasotako omenaldiari: "Bihar egunkaritan agertzea ez da garrantzitsuen/a/paltasuna da armarik onena".



ERTZAIN BATI KOTXEA ERRE DIOTE

PSE-EE, EAJ-PNV, EA eta PPre salaketa

Joan den hilaren 30ean herriko bizilaguna den J.L.H.M ertzainari kotxea erre zioten goizaldean. Ondorioz, PSE-EE, EAJ-PNV, EA eta PP alderdiek gogor salatu dute ekintza eta ertzainarekiko elkartasuna adierazi dute lerro hauen bitartez:

1- J.L.H.M. ertzaina nabiz Ertzaintzarekiko elkartasuna adierazten dugu, berri honetan sustraituriko Institutuzioa denez, atentatua jasan duen bizilaguna bezalaxe erasoturik sentitzen baikara.

2- Ertzaintzarekin batera lan egiteko jarrera positiboa bartzera gonbidatzen ditugu herritarrek.

3- Gaitzesten ditugun antzeko ekintzak, koldartu ordez, "abangoardiako askatzaileen" beharrik gabe, denok ditugun ideiak defendatzeko aukera izango dugun elkarbizitza justuagoa, baketsu eta normalizatu baten alde lanean jarraitzeko indarra ematen digute.

PRESOAK EUSKAL HERRIRA ETA J.M. ALDAIA ETXERA

• **Senideak-en moziolari EAJ-PNVren kontramozioa**
• **EHko Udal Intsumisoen Mankomunitatea**

Udalbatzak EAJ-PNVk aurkeztutako kontramozioa onartu zuen PSE-EEren laguntzaz. Bi atal zeuzkan moziok: lehenengoan presoan eta beren senitartekoen oinarrizko eskubideen errespetoa, presoak Euskal Herrira gerturatzea eta Espetxeen Araudiaren arabera baldintzak betetzen dituzten presoan baldintzapeko askatasuna eskatzen zen; bigarrenean J.M. Aldaia enpresariaren bahiketa gaitzetzaz gain, ETari aske utzi dezan eskatzen zitzaion. HB, IU-EE eta PPK aurkako botoa eman zioten moziolari. EAK ez zuen bozketan parte hartu.

Aldez aurretik Senideak aurkeztutako moziok bozkatu zen. Bertan presoan eta senitartekoen oinarrizko eskubideen errespetoa, presoak Euskal Herriratzera eta dagokien presoan baldintzapeko askatasuna eskatzen zen. Azkenik, gaur egun Martutunen dagoen J.M. Urdanpilleta preso andoaindarra bertan utzi eta berriro ere



Almeriara eraman ez dezaten beharrezko gestioak egin ditzan eskatu zioten Udalari.

Adierazpenak

Senideak gogor kritikatu zuen EAJ-PNVren jarrera, kontramozioa aurkeztuz aurkakotasuna bilatzen zuela leporatuz. J.M. Aldaiaren alde moziarik aurkeztearen aurka ez zeudela zioten, baina ez zeukala zertan beren kontramozioa izan beharrik. "EHak bizi duen gatazka politikoak eragindako beste preso politiko bat da J.M. Aldaia eta Senideak aurkeztutako zerrendari gehitu behar geniola uste genuen", adierazi zuen Garbiñe Egibar jeltkideak kontramozioaren arrazoia azalduz.

"Presoci legezkoa dena zor zaie, baina ezin dira presoak aipatu eta Aldaia ahaztu", esan zuen Eloi Artolazabal sozialistak. Beren nahia presorik ez egotea litzatekeela adierazi zuen, baina indarkeriak iraun bitartean estatu demokratikoaren erantzuna ere zilegitzat jo zuen.

HBk hitz gogorrak izan zituen EAJ-PNVren aurka: "Bi moziok zaku berean sartzea, Senideak elkarteari txantxatua egitea da", esan zuen J.J. Petrikorenak. EAK giza eskubideen alde ze-

gocla adierazi zuen eta lehendik ere Udalak Aldaiaren askatasunaren alde moziok onartu zuenez, biak batera aurkezteak ez zuen egokitzat jo. Horregatik onartu zuen Senideak-en moziok eta ez zuen kontramozioari zegokion bozketan parte hartu. PPKo Juan Carlos Canok, euskal preso politikorik ez dagoela eta presoak jaitorrerira hurbilarratzeari buruz legeak ezer ez diola adierazi zuen.

EHko Udal Intsumisoen Mankomunitatea

Udalbatzak EUDIMako partaide bilakatzea onartu zuen herriko talde antimilitaristak proposatuta. PSE-EE eta PPK aurka egin zuten. Legez oinarririk gabeko erakundea dela argitu zuen idazkariak. Talde antimilitaristak hala ere, EHko 10.000 intsumisoek horretarako legitimitatea ematen dietela adierazi zuen.

EAJ-PNVk beste proposamen osagarri bat egin zuen, baina azkenean, atzera bota zuen: EHko Udalen Elkartean, EUDEL erakundean, Udal intsumisoen gaia lantzeko batzordea osatzea, EUDELeK Udalez kanpoko gaietarako eusteko asmorik ez daukala argitu zuen alkateak.

UR HODIEN LEHERKETAK

Andoaindar askok eduki du azkenaldian honetan herriko ur hodian egoeraren berri. Batez ere udako hifabeteetatik hona etengabe ur hodian leherketak ditugu kalean, behin eta berriro urrik gabe uzten ditugutenak. Eta ez dira inolatan hiko edo noizbehinkako leherketak, izan ere Andoainek erabiltzen duen uraren ehuneko 50 edo 60a, hau da, kontsumitzen den bezainbeste, leherketa edo hausturara horietan joaten baita. Era berean euri asko egin ondoren pilatzen den zikinak ere izaten du eraginik hodiaren egoeran.

Gastatzen dugun bezainbesteko ur kopurua galtzea arduratzeko moduko datua da, eta egoera honen aurrean inoiz baino nabariagoa da honi irtenbide bat emateko beharra. Uraren kontsumoa gutxitzeko hiritarrak kontzientziatzeko kanpainak egiten diren bitartean, ura hainbeste gal ez dadin eragozteko neurri eraginkorrik ez da hartzen, zulatzen direnak estaltzea ez besterik.

Andoaingo ur hodian egoera zehazki ezagutzeko azterketa bat eta honi aurre egiteko plangintza bat egiten ez den bitartean zuloak estaltzea besterik ez dugu egingo, eta bi urte barru Uren Partzuergoan sartzen garenerako herriko tuberien egoera errotik eraldatu ez badugu, arazoa larriagotzen besterik ez da joango.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu datorren urterako aurrekontuetan ur hodian egoeraren azterketa bideratzeko beharrezko partida jasotzea, batez ere kontuan izanda orain herrian garsaren instalaziorako zulaketak egiten ari direla eta une egokia dela ur hodian egoera aztertu eta hobetzeko.

Andoaingo Herri Batasuna

Udaleko Zerbitzu batzordeko buru den Maxen Zinkunegik hitz egin du AIURRI Herri Batasunak gutun bitartez helarazi digun auziari buruz. Konponketa lanei ekiteko plangintza zehatzik ezcan, adierazpenik ez egitea egokiago litzatekeela adierazi digu. Hala ere, prestatzen ari diren 1996ko aurrekontuan inbertsioen atalean arazoari irtenbidea eman nahian ur hodian konponketak beren lekua izango duela adierazi digu. Halaber, Kale Nagusiko urbanizazio lanei ekidatzean zenbait konponketa egingo direla adierazi digu. Hau da, 2001. urterako Europako araudiak eskatzen duenari jarraituz, Oria ibaia garbitzeaz gain, ur hodian egoera egokitzeko plangintza zehatza egin asmo du gobernu taldeak.

IPARRALDEKO HAURRAK HERRIAN

Ezaugarri amankomunetaz ohartaraztea dute antolatzaileek helburutzat

Hirurogei haur inguru elkartuko dira urtarrilaren hamairuan Asteasun eta asteburu osoa elkarrekin igaroko dute. Erdiak Iparraldeko haurrak dira eta besteak berriz, Beterriko eta Tolosaldeako bailarako umeak. Muskil elkar-teak eta Iparraldeko Udaleku Elkar-teak antolatu dute bilkura.



Iaz, Donibane Lohitzungo kaian

Iaz Donibane Lohitzunera joan ziren Hegoaldeko umeak eta bertako herritarren bizimodua, hizkera eta ohiturak ezagutzeko aukera izan zuten. Horrezaz gain, bertako haurrak ezagutu eta horien lagun egin ziren. Aurtengoan berriz, Iparraldeko haurrak etorriko dira Asteasura. Horrela, Donibane Lohitzuneko haurrek nekazal herri txiki bateko bizimodua ezagutzeko aukera izango dute. Bertako haurrekin eta ingurukoekin ibiliko dira zortzitik hamaika urte bitarteko umeak.

Asteburua ondo igarotzeko ekintza ugari antolatu dituzte Muskil elkartekoek. Larunbata goizean Asteasun elkartuko dira haur guztiak eta elkar ezagutzeko jokoak egin ondoren Sarasola sagardotegira joango dira sagardoa nola egiten den ikustera. Ondoren herriko zenbait baserri bisitatuko dituzte. Bazkaldu ondoren herria ezagutzeari ekingo diote jokoan bidez. Eguna ondo bukatzeko afaldu ondorengo jokoak eta gau-bela egingo dituzte.


Igandean berriz Asteasutik irten eta inguruneak ezagutuko dituzte. Ibildaldia egingo dute horretarako eta jolasen bidez ezagutuko dituzte parajeak. Igande arratsaldean, gauzak bildu ondoren eta ogitartekoa eskuartean dutela asteburuan zehar


garbatutako bideoa ikusiko dute. Gurasoak ere gonbidatuta daude seme-alabekin batera bideoa ikustera.

Talde bizitza landu

Ekimenaren helburuak haurrak bere buruarekiko konfidantza hartzea eta umeak talde bizitzan ibiltzea dira. Haurrek egoera eta ingurune herrira egokitu beharko dute eta lagun berriak egiteko elkarrengana hurbildu. Gainera elkarbizitzan igaroko dute asteburua eta talde mailan egin beharko dituzte hainbat ekintza. Horrekin guztiarekin talde bizitza landu nahi dute. Horrekin batera, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrien ezaugarri amankomunak ezagutarazi nahi dizkiete.

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Anaia Kortajarena
 Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
Z I Z U R K I L

Orremendi
Kirolak
AUKERA ZABALA
KIROL ARTIKULUETAN

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF. 59 18 06 ANDOAIN

Aurri
Beltz
 Taberna

 Kaleberria, 9 ANDOAIN TELF. 59 35 49

PINTURA ERAKUSKETA AMAITU DA

Enrique Velazquezen margo ugari egon dira ikusgai

Enrique Velazquezek hogeita hamairu urte ditu, Zizurkilén bizi da eta Billabonan egiten du lan. "Denbora librea dudanean margotzen dut: ezinezkoa da afizio honetatik bizitzea" esan digu Enriquek, eta egun koadro gutxi saltzen direla azaldu digu. Umetatik margotzen du, aita ere margolaria zuen, eta hamaika urtekin irabazi zuen bere lehendabiziko saria. Harrez gero koadro asko eta erakusketa ugari egin ditu eta baita lehiaketetan parte hartu ere. "Maila ona dute egungo gazteek eta baita margotzen hasi berri diren jubilatuek ere" azaldu du Enriquek eta margotzeko ikastaroak eta erakusketak egiteko lekuak ugaritzea positiboa dela esan digu. Hala ere, materiala garestia da eta dirulaguntzarik ez omen dute jasotzen.

Erakusketak ez dira saltokiak

"Erakusketetan nire margoak ezagutarazten ditut" azaldu digu margolariak, baina koadroren bat salduz gero pozten dela aitortu digu. Berrogei mila pezeta, gutxi gorabehera, balio dute koadroek, baina erosi nahi ez dutenek ere atea zabalik dituztela esan digu Enriquek: "Batzuk ez dira sartzera ausartzen, zerbait ordaindu beharko duten beldurrez edo".

Bi urtetan egin ditu erakusketan ikusgai egon diren mihiseak eta denek ildo bera dutela azaldu digu: "Koadro hauetan espazio gabezia salatzen dut eta era berean, mugimendurako espazioaren beharra aldarrikatzen dut". Material ugari erabili ditu koadroak egiteko eta eskultura ere lantzen duela berehala iragaritzen da margoen so eginez gero.

Abenduaren hogeita hirutik urtarrilaren zazpira arte eduki ditugu ikusgai Enrique Velazquez margolariaren margoak Gurea erakusgelan. Arte internacional taldeko partaidea da Enrique eta ondorioz hilean behin erakusketa bat egiten du. Erakusketa horietaz gain, hasi berri dugun urte honetan erakusketa ugari egin behar ditu eta Loiolan izango da gutxi barru.



Enrique Velazquez erakusketako margo baten alboan

EGUNEKO EGOITZA IREKITZEKO ASMOA

Inkesta bat egiten ari dira herritarren artean

Enplegu eta Ongizate batzordea Eguneko Egoitza irekitzeko egitasmoa aztertzen ari da. Horretarako inkesta bat banatu dute hirurogei urteko herritarren artean eta horrela, Billabonako biztanleen %17a osatzen duten zaharren egoera ezagutu nahi dute. Inkestak jaso eta aztertu ondoren erabakiko dute egoitza irekitzeko beharra dagoen.

Eguneko Egoitza 60-65 urtetik gorako billabonatarrentzat eta bere kabuz iharduteko gauza ez diren pertsonentzat dago zuzenduta. Egoitza mota honek arreta berezia eta zahartzaroak dakartzan arazoak gainditzeko laguntza eskaini nahi die herritarrei.

Osasun zerbitzua, gizarte zerbitzua eta pertsonala eskainiko litzuke egoitzak zaharren gaisotasunak, bakardadea eta asperraldiak ekidin nahian. Asteleheneetik ostiralera arte irekiko lukete egoitza eta ordutegia berri, goizeko bederatzietatik arratsaldeko seiak bitartekoa litzateke.

BILLABONAKO JUBENILAK

Ligako bigarren postuan daude

laz igo ziren Billabona Kirol Elkarteko futbol taldeko jubenilak bigarren mailatik lehenengora. Irabazi egin zuten orduko txapelketa eta aurten ere aukera bera dute, nahiz eta hasierako helburua lehenengo mailan mantentzea bakarrik izan. Txomin Ugaldek entrenatzen ditu futbol taldeko hogeita bi mutilak eta asotean hiru aldiz dauzkate entrenamenduak Arratzaingo futbol zelaian.



Gaztelxoenek ere bide berberari jarraitu nahi diote

Billabonakoak dira ia jokalaria guztiak eta gehienak zazpi urtetatik ari dira baloiari ostikoka. Oso giro ona omen dute beraien artean eta hori futbolean ondo aritzeko beharrezkoa dela esan digu Txomin Ugalde entrenatzaileak. Hamasei urtetik hemezortzi urte bitarteko gazteek osatzen dute jubeniletako taldea eta hurrengo urterako, adina dela eta, zazpi jokalariek taldea utzi beharko dute. Ekipoa oso ondo ari da jokatzen eta jokatu dituen partidua ia gehienak irabazi ditu. Ugaldek esan digunez, gogorragoak dira jubenilen lehen mailako partidua eta beraz, entrenamenduak ere maila berekoak dira. Jorge Alvarez Kirol Elkarteko lehendakariak berriz, jubenilen ekipoarengan itxaropen handia dutela adierazi digu. Aurten go txapelketa irabazten badute ohorezko liga delakora igoko dira. Hori

gaindituz gero Euskal ligan jokatuko dute, baina Ugaldek eta Alvarezk esan digutenez nahikoa dute oraingoarekin eta ahal dutena egiten jarraituko dute.


Umetatik futbolean

Hiru futbol talde daude Billabonako Kirol Elkartean. Infantilak dira gazteenak eta hamabi urtetik gorako mutilek osatzen dute taldea. Aurten ligako hostgarren postuan daude. Erdikoak kadeteak dira eta horiek zortzigarren postua lortu dute. Azkenik, lehen aipatu ditugun jubenilak daude eta ligako bigarren postuan ari dira jokatzen. Orain benjamin eta alebin kategorietako taldeak osatuko dituzte. Zortzi urtetik gorako hurrek hartuko dute parte futbol ekipo horietan eta Tolosako eta Zizurkilgo ekipoen aurka jokatuko dituzte partidua. Txapelketa txikiak eta herrikoak direla argitu digu

Jorge Alvarezk eta haurren talde horiek lehiaketako futbol taldeei jarraitpena emateko direla esan digu. Izan ere, hondartzan jokatzen ziren partidua kendu egin dituzte eta hurrek zailtasunak dituzte futbolearen aritzeko.



Jose Alvarez



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

OCTAVIO CANORA
Dr. Huizi, 8 behea
ANDOAIN


PAPIRO

KALITATE HANDIKO
KOADERNAKETAK

MOHAMED ETA OTMAN MAROKKOAR ARTISTAK

Irailean erakusketa bat egingo dute herrian

Mohamed Anzaoui margolaria eta Otman Chentouf disenatzailea herrian izan ditugu Gabonetan. Batak koadroak margotzen ditu eta besteak berriz, arropa diseinatzen du. Asilah herrikoak dira biak eta zizurkildar asko ezagutzen dituztelako etorri dira herrira. Beraiekin aritu gara kulturaz, arteaz eta nola ez, Euskal Herrian ezagutu dutenaz berriketan.



Mohamed eta Otman

Astebeterako etorri ziren eta alde batetik bestera ibili dira Euskal Herriko txoko guztiak ezagutu arte. Inoiz ez ziren hemen egon eta gehien gustatu zaienari buruz galdetzean, jendea oso atsegina dela erantzun digu Mohamed-ek. Otman-ek berriz, hemengo janaria gustatu zaiola aitortu digu. Marokkon, Euskal Herriaz jasotzen duten informazioa egia osoa ez dela eta urria dela adierazi digute: "Jasotzen ditugun berri bakarrak bonba eta antzeko gauzei buruzkoa da, gehiago zehaztu gabe" esan digu Mohamed-ek. Gure errealitatea eta kultura zabaltzeko, pentsatzen duguna hizkuntza ezberdinetan eta herrialde ezberdinetan azaldu beharko genukeela gaineratu digu.

Artea kalera

Mohamedek Asilahko udaletxean egiten du lan eta duela bi urte hasi zen koadroak margotzen. Beste hiru lagunekin batera talde bat osatzen du eta erakusketa ugari egin dituzte. "Malagan egin berri dugu erakusketa bat baina politena udaran Asilahn egiten den jaialdi kulturalakoa da: musika eta guzti izaten da" esan digu Mohamed-ek, erakusketa asko kalean egiten dituztela gaineratuz. Izan ere, Otmanen arropa dendaren kanpoaldean erakusketa asko egin dituzte. Bestalde, "arropa herrian zehar desfilatut izan dugu, jendeak ikusteko" adierazi digu Otmanek. Arabe estiloko arropa egiten du Otmanek, bertako kulturaren oinarrituz eta hango materiala erabiliz. Era berean egungo diseinu berrien ildo jarraitzen du eta adierazi digunez, Sevillako lagun batek erakutsi zion arropa diseinatzen, Mohamedek ere bertako kultura eta egungo ildo berriak jarraitzen ditu margoetan eta Mediterraneoko koloreak asko erabiltzen dituela azaldu digu. Gainera, askotan hondartza ingurune bat garbitu eta bertako haitzak eta zuhaitz enborrak margotzen dituzte Mohamedek eta bere lagunak: "Ekimen horren bidez bertan dagoen jende askok hartzen du parte margoketan; jende askok egiten du artea".

Irailean berriro ere Zizurkilera etortzeko asmoa dute eta bertan margoen eta jantzien erakusketa egingo dute. Horrezaz gain, hango kultura ezagutzeko bideoak eta musika ekarriko dituzte.

MBE SOTKON TEKNIPLAS ENPRESA BERRIA

Europar zaborra biltzeko sistema aitzindaria asmatu dute

"Irla ekologiko integrala" esaten zaio enpresa berri honen arduradun den Modesto Balerdik asmatu duen zaborra biltzeko sistemari. Adunan daude behin-behingo, egitasmoa aurrera ateratzeko elkartu zaien bazkideek bertan daukalako lantegia.

Eta hain zuzen ere, Adunan bertan, egin berri diren etxeetan ezarri da Europar, eta ziur aski mundu osoan, lehenengoz sistema aitzindari hau. Langabezian geratu behar zuela, eta betidanik ekimen handiko pertsona izan den Modesto Balerdik ate asko jo ditu lanean hasi zenetik. Lau urteko bide luzea egin du. Momentuz medio urriak daukate, baina ziur daude asmakizuna ona dela eta etorkizuna izan dezakeela. Beren proiektua ezagutzera ematea besterik ez zaie geratzen.

Ohiko kontenedoreen funtzioa bete nahi du asmakizun berriak. Funtzio berbera bete, baina abantailak eskainiz. Ezagutzen ditugun kontenedoreetan zaborra bota eta bertan geratzen da, agerian batzuetan, askotan zabor asko hartzeko gai ez dela. Balerdik asmatutako sistema berriak, zaborra biltzeko biltegia lur azpian kokatuta dauka. Agerian buzoi antzeko bat baino ez da geratzen. Horrek alde batetik estetika irabazten du, eta bestetik, ohiko kontenedoreek jasotzen duten zaborraren hirukoitza jasotzen dute kontenedore moderno hauek. Lur azpian erabat gordeta gelditzen da zaborra, batera usainik botatzen ez duela.

Une honetan asmakizuna ezagutzera ematen ari dira

Pieza nagusienak Adunan bertan egiten dituzte. Horrez gain, beste zenbait osagai Andoaingo eta Lemoako bi enpresek egiten dituzte. Kamioiek kontenedore hauetatik zaborra ateratzeko aldatuta handirik ere ez dute behar, osagarri xume bat besterik ez zaie jarri behar. Erosoa da gainera mekanismoa; hidraulikoki altxatzen da biltegi handiaren

estalkia. Poliesterrez eginda daude pieza nagusiak. Gaur egun eskarien arabera ekoizpena egiten ari dira: eskatu ahala egiten dituzte. Enpresa bi lagunek osatzen dute: lan komertziala egiten duten bi lagunek. Eskaria lortzen dutenean behin-behingo kontratatzen dituzte bizpahiru lagun.

Adunan dago gaur egun ezarrita Europako lehenengo "irla ekologiko integrala". Irla osoa bi kontenedore motak osatzen dute: batek alde batetik papera jasotzen du, eta beira bestetik. Beste kontenedoreak zabor organikoa biltzen du. Kontenedoreei beste erabileraren bat ere emateko ideiak badauzka buruan, baina asmakizun berriak aurreratu ezin ditutela esan digu Modesto Balerdik.

Momentuz Gipuzkoa eta inguruko herrietan ari dira beren asmakizuna ezagutzera ematen: "Guk esaterak dioenaren aurka egin nahi dugu: profetak izan nahi dugu herrian". Udalak izan ohi dira enpresa berri honen bezero nagusiak kontenedore zaharrak aldatu behar dituztenean eta etxe berriak egiten dituztenean.

Laguntzak

Gizon ausarta da Modesto Balerdi. Hala ere, negozio berri bat martxan jartzeko ausardia baino gehiago behar dela esan digu. Berak bazkidea eta azpiegitura lortzeko zori ona izan du. Hala ere, ate asko jo ditu eta bidea luzea izan da dagoen tokira iristeko. Eusko Jaurlaritzak "Nuevos promotores" izenpean antolatutako egitasmo batean aukeratu zuten. Proiektua aurkeztu zuen, aukeratu eta dirulaguntza eman zioten aurrera egiteko. Hala ere zeroetik hasita berak ere ia ezinezkotzat jotzen du: "Zuk laguntza eskatzen duzunean, beraiek zerbait eskatzen dizute beti trukean. Eta argi dago goian-behean zerua eta lurra besterik ez daukanak nekez egin ahal izango duela aurre".



Muntaia egiten

A.A.: ALKOHOLIKO ASKOREN SALBAMEN BIDE BAKARRA

"Alkoholikoak edaten jarraituz gero, hiru bide dauzka aukeran: kartzela, zoroetxea edo kanposantua"

1986. urtean sortu zen Billabonan Alkoholiko Anonimoak elkarte, eta 1990.enean Andoainen. Batean nahiz bestean herri bertako nahiz kanpoko alkoholikoak elkartu ohi dira. Askok bizilagunek ezagutu ez ditzaten aldatzen dute herriz. Joxe, Antonio eta Begoñarekin hitz egin dugula esateak, edota Manu, Martin eta Luisekin hitz egin dugula esateak berdin du, guri ere ez dizkigute eta, egiazko izenak esan. Urrezko arautzat dute anonimotasuna: "Bitxia da; lehen kalean mozkor-mozkor eginda ibiltzen ginenean berdin zitzaizun edonork ikustea, gero alkoholiko zarela onartu eta gero, lotsatu egiten zara".

Beren bizipenak krudeltasunez, ironia apur batez eta itxaropentsu azaldu dizkigute tragorik edan gabe urteak daramatzaten hiru alkoholikok. Gaisoak dira, eta badakite bizitza osorako gaisotasun sendagaitza daukate: "Trago batek besterik ez gaitu edaten duen alkoholiko batengandik bereizten", esan digute. Lehenengo trago madarikatu hori edango balute, badakite atzean utzi duten infernu berbera bizi beharko luketela beste behin, eta bide horrek hiru norako omen dauzka: gartzela, eroetxea edo kanposantua.

Alkoholiko Anonimoak zuzpertzuta dauden alkoholikoen elkarte da. Bata besteari lagunduz, esperientziak, bizipenak, indarra eta itxaropena elkartrukatuz alkoholari ezetz esatea lortzen dute. Taldean ez dago inolako gidaririk, ez zuzendaririk, inork ez dauka besteak baino ezagutza handiagorik bizipen pertsonalei dagokienez. Lehenengo eta behin, helburu eta asmo bakarria daukate, eta urteak igaro ondoren ere helburu berbera izaten jarraitzen dute: alkohol tantarik edan gabe bizitzen jarraitu. Gero gerokoak dioen irakaspena daukate buruan, hau da, alkoholak urteetan eragindako arazoak berez konpontzen omen dira, edateari utzitakoan: "Hala ere, edateari ez zaio utzi behar norberak dituen arazoak gainditzeko: norbere buruagatik sendatu eta aurrera egin beharra dago", zehaztu digute.



"Alkoholikoak izaten jarraitzen dugula gogoratzeko elkartzen gara"

Bakarrik ez omen dago alkohola uzterik, eta elkarte salbamen bakartzat daukate elkarteko kideek. Izan ere, eta diotenez, Alkoholiko Anonimoak 1936. urtean New Yorken bi alkoholiko elkartu eta bata besteari bizitza kontatzen hasi zirenean sortu zen: "Aizu, hitz egingen egon garen bitartean, konturatu al zara edan gabe egotea lortu dugula?" esan omen zion batak besteari. Eta horixe izan zen hasiera. Gaur egun 92 herrialdetan 28.000 elkarte daude zabaldua. "Elkartzen jarraitu be-



heriotzaren atzetan. Lehenengo bultzadatzeko beti ematen dute senitar-teko hurbilenek, hala ere norik bere kabuz jarraitzea erabakitzen ez badu, huts egingo du. Drogomenpekotasun guztiak antzekoak direla esango luke gaiari adituak ez den baten batek, hala ere, esan digute heroinazalea eta alkoholikoa ez direla sendatzen bide berberari jarraituz. Kontatu digute, hala ere, heroinazaleak sendatzeko erabiltzen den "Gizakia Helburu" egitasmoa Alkoholiko Anonimo elkarteak jarraitzen dion filosofian oinarrituta dagoela.

Loteria bezala

Eldaten duten guztiak ez dira alkoholikoak; askok aitaitik, direla jakin gabe iristen dira heriotzera. Gabonetako loteria bezala omen da,

harra daukagu, geure buruari alkoholikoak gurela gogoratzen jarraitzeko, etorriko ez bagina ia ziur gaude berriro hasiko ginatkeela edaten", diote krudeltasun osoz. Konfidantza da beren etsairik handiena: "Nahiz eta urteak edan gabe eman, guk beti diogu ordu batzuk daramatzagula edan gabe".

Nano eroa edo edateko antsia

Burmuinaren hondoa gordeta daukaten nano eroaren bitartez pertsonifikatzen dute alkoholikoek edateko daukaten antsia. Trago bakar bat besterik ez da behar nanoa bere onetik atera eta edozein erokeria eginarazteko. Nano hori betiko daukate barruan, horregatik diote alkoholismoa bizitza osorako gaisotasuna dela. Adimenaren, izpirituaren eta gorputzaren gaisotasuna da alkoholismoa. Horregatik, Alkoholiko Anonimoak eskaitzen duen bidea, bide izpiritualtzat hartzen dute elkartekideek: "Munduko psikiatra ospetsuek alkoholikoak gure elkartera bidaltzen badituzte, zerbaitegatik izango da", esan digute.

"Edateari uztea ez da zaila; zailena edan gabe bizitzen ikastea da"

Esperientziak beste biderik ez dagoela erakusten du. "Nik neure buruari agindu nion inoiz ez nintzela elkartera etorriko; azkenean, beste biderik ez zegoela konturatu nintzen, -kontatu digu elkartekidetak batek- hilabeteak igaro nituen bileratan hitzik esan gabe, lotsatuta, lur jota, biltzen jarraitu nuen, eta beste lagunek nire bizitza kontatzen ari zirela konturatu nintzen egun batean. Orduan jakin nuen edaten bizi gabe jarraitzeko bide bakarra hura izan behar zuela". Esan digutenez, Alkoholiko Anonimo elkarteak atea munduan dagoen aterik txikiena eta estuena da. Askok kostatzen da atea zeharkatzea. Azkenetan dagoela bertaratzen da jendea,

batzuei tokatzen zaie eta beste batzuei ez: "Gure koadrilan hamalau ginen -kontatu digute-; guztiek edaten genuen berdin. Ni alkoholiko bihurtu naiz, eta beste hamairuak ez". Estadista ofizialak, hala ere, hor daude: EKEan 1.200.000 alkoholiko daude. Portzentaia horren arabera, 2.000 gazteren artean, 10 urte barru, 400 alkoholiko izango dira.

Esperientzia latzak bizi izan dituzte Alkoholiko Anonimoko elkartekideek, bai edaten zutenean bai utzi ziotenean ere. Hala ere, zalantzarik gabe, merezi duela lakoan daude: "Ez dago bizi kalitatearik alkoholaren menpean bizi denarentzat". Bestalde, alkoholak bildu dituen pertsona hauek, hitz egiten hasi zirenez geroztik beste esperientzia batzuek ere elkartzen dituzte. Bizitzeko ikasgai garrantzitsuak bihurtu diren esperientziak jaso dituzte, eta pozik eta itxaropentsu daude horregatik: "Badakigu gauza asko egin ditugula gaizki; orain berriz ongi ari gara". Elkarrizketa bukatzen ari girela beren bizipenak kontatzen zizkigutela, irribartsu jarraitzen zuten gure hiru solaskideek, eta jakinminez egin diegu galdera: "Zuek iritsi zareten puntura iritsita, iraganaz gogoratuta, norik bere buruaz egin al dezake barre?". "Bai, guk barre asko egiten dugu, baina malkoak ere erruz isuri ditugu", erantzun digute. □



Andoain

PILAR RODRÍGUEZ AKTO-RESAREKIN SOLASEAN

Aurki ikusiko dugu Goenkalen: Amaiaren ama, Petra, izango da

Leitzarra da izatez, baina Andoainen horrenbeste urte egin ondoren erdi andoindartzat dauka bere burua. Ezkondua da, hiru seme alaba dauzka, eta bere adina ezagutzera emateko lotsarik ez baldin badauka ere, ofiziorako esatea komeni ez zaiola aitortu digu eta beretzat gorde du sekretua. 1982. urtean hasi zen antzerki lanetan, eta geroztik, gehixeago edo gutxixeago, etengabe egin du lan taula gainean, telesail ugarietan, zinema ezagutu du eta bikoizketa lanetan ere aritzen da. Azken bolada honetan bete-betea ari da lanean antzerkia eta telebista tartekatuz: batetik Aitzpea Goenagaren zuzendaritzapean ari da Felipe Barandiaranekin batera "Zu T gabe" lana antzezten; bestetik, hilabete honetan bertan hasiko da Goenkale telesailako pertsonaia berria interpretatzen; eta gainera, otsailean "Ajuria-Enea" deituriko telesail berri batean ikusi ahal izango dugu.

AIURRI: *Nolatan hasi zinen antzerkian?*

P. RODRÍGUEZ: *1982. urtean Antzertik ikastaro batzuk antolatu zituen. Nik beti izan dut antzerkia gogoko. Lagun batek joateko eta joateko esan zidan. Joan nintzen eta frogak gainditu nituen. Lehenengo ikastaroaren ondoren beste batzuk izan ziren, eta 1984. urtean nire lehenengo antzerki saioa egin nuen Bederen 1 taldearekin. Nirekin eta beste lagun batzuekin batera sortu zen taldea orduan. Zortziren bat antzerki lan egin ditut geroztik. Geroago telebista ezagutu nuen: "Bi eta bat", "Penelopenea" eta beste saio batzuetan hartu dut parte. Zineman herriz, oso gutxi aritu naiz: "Urte ilunak" eta "Erreportariak" filmeetan interpretazio motz batzuk besterik ez ditut egin.*

A: *Profesionalki oso une ona igarotzen ari zerala uste dut?*

P.R.: *Bai, bala da. "Donostiako hiria" irabazi zuen Aitzpea Goenagaren zuzendaritzapean egiten ari naizen lana oso interesgarria da. Ez dakit beste borrelako aukerarik izango dudan. Orain arte egin dudan lanik garrantzitsuenak da. Senarra galdu berri duen alargun-isa batek bildako senarrarekin daukan barremanaren eta elkarrizketaren bitartez emakumeak bere bizitzari*



errepasoa egiten dio. Monologo asko dauka. Sentimenduz betetako istorioa da. Oso lan gogorra da, baina aldi berean erronka handia bihurtu da eta buru-belarri ari naiz lanean. Azpeitiko antzerki topaketetan egin genuen aurkezpena eta geroztik saio ugari egin ditugu euskaraz eta gazteleraz. Urtebete edo, arituko garela pentsatzen dut.

"Orain arteko pertsonaiarik interesgarriena ari naiz une honetan antzezten"

A: *Goenkalen ikusiko zaitugu aurki, ezta?*

P. R.: *Bai, urtarrilean hasiko naiz grabatzen. Amaiaren ama izango naiz, Petra.*

A: *Eta zer modukoa izango da Petra delako hori?*

P. R: Oraindik ez didate gauza bandirik zehaztu. Alabarekin nabikoa barreman txarrak izango dituela uste dut. Ez dakit zenbateko bizi iraupena izango duen pertsonaiak.

A: Eta otsailean?

P. R: Otsailean ikusleek "Ajuria-Enea" izeneko saioa ikusi abal izango dute telebistan, lehenago izenik aldatzen ez badiote behintzat, jakin dut eta, arazoren batzuk izan direla. Fermin Olasagasti eta Karlos Zabala dira saioaren sortzaileak, eta Joxe Ramon Sorozte izango da lehenbaitzara iritsitako sukaldari xelebrea. Umorezko saioa izango da, parodia antzekoa. Neri barne ministrariarena, Alutxa jaunarena egitea tokatu zait.

A: Aktoresa lana ofiziotzat duzu, beraz?

P. R: Bai, aktoresa naiz lanbidez, nabiz eta etxeke lanekin tartekatzen dudana beste askok bezala ofizioa.

A: Zer nabigo duzu: antzerkia ala telebista?

P. R: Oso medio ezberdinak dira. Hala ere, egia da normalean aktore-aktoresa askoz ere gehiago betetzen duela antzerkiak. Telebistan askotan interpretazio lanak egiteko ez dira modu egokienak izaten.

A: Zer diote zure lanbidez familiak eta lagunak?

P. R: Familiak batez ere, asko lagundu dit beti, eta ez dut inoiz arazorik izan. Gaur egun ere etxekeok animatzen naute zenbait ekitalditara joateko esanez. Ez dut esango gogoko ez ditudanik, baina nabigo dut taula gaina, bestelako parafernalia hori guztia baino.

A: Ez daude zure adineko aktoresa asko?

P. R: Ez, ez gara asko. Antzertik antolatutako ikastaro hartan parte hartu genuen baitatik ari gara gaur egun gehientsuenok lanean. Eta eskerrak! Handik aurrera ikastaroetan parte hartzeko adin muga jaritzen hasi baitziren. Bestalde, gure adineko pertsonaia askorik ere ez dute sortzen, eta beti egokitzen zaigu adina baino zabarragoak diren pertsonaiak antzeztea. Gizonzkoek gainera, emakumezkoek baino pertsonaia gehiago interpretatzeko aukera daukate.

"Normalean garena baino pertsonaia zaharragoak antzezten ditugu nire adineko emakumezkoek"

A: Gauza asko eta azkar egin dituzula esango nuke?

P. R: Ez pentsa; sasoi guztiak ez dira, gainera, berdinak izaten. Gazteei, bestalde, gauzak egiteko bizitza osoa daukatela iruditzen zaie, baina nik, gauza asko eta arin egiteko gogoak daukat. Gainera, hortxe egon beharra daukazu, agerian, bestela edozein momentutan zutaz abaztu egiten dira, eta egindako bideak ezer gutxirako balio du.



A: Komedia ala tragedia?

P. R: Paper dramatikoetarako joera daukat nik, baina komedia egiteko gogo handia daukat.

A: Zer diozu euskarazko antzerkiari buruz?

P. R: Euskarazko beste edozein ekimen bezalaxe, lagundu egin beharra dagoela. Dirulaguntzen bidez lagunduta ere, nabikoa lan izaten dugu eta. Hala ere, zailagoa ere izan da antzerkia euskaraz egitea.

A: Ikusten al du jendeak antzerkia?

P. R: Herri batetik bestera alde handia dago. Oso gauza ezaguna eta berezia ez bada, beti-betikoak joaten dira antzerki saioak ikustera. Bestalde, Udaletan dirurik ez omen dago eta...

A: Aspalditxo ere herrian antzerkia egina zara?

P. R: Bai, Iparragirre antzerki aretoan egiten genituen saioak Sekundino Etxeberria zenaren eta Joxe Eizmendiren zuzendaritzapean orain dela hogeita hamar urte inguru. Gogoan dauzkate Mari Karmen Zuaznabar eta Joxe Mari Uranga adibidez, nirekin batera ibiltzen zirela. Sekulako dramak izan obi ziren baitiek: "Harresi latza" edo "La berida luminosa" bezalako izenburuak gogoratzen ditut. Oso polita izan zen hura.

"Iparragirren egiten genuen garai batean antzerkia: sekulako dramak izaten ziren"

A: Antzerkiak balio al dizu eguneroko bizitzarako?

P. R: Gauza guztiak balio dute obiko bizitzarako, baita antzerkiak ere. Etengabe ikas daiteke.

A: Topikoak dioen bezala, bizitza antzerkia dela uste al duzu?

P. R: Askotan bai behintzat, batzuetan sekulako tragedia bilakatzen da, eta beste batzuetan barregarri aritzen gara.

A: Zer nabiko zenuke aurrerantzean?

P. R: Ez daukat asmo zehatzik. Pertsonaia interesgarriak antzezten jarraitzea gustatuko litzaidake. ■

JUAN KRUZ IGERABIDE: HAURREN POETA

“Barne egoera berezia ari naiz urte hauetan bizitzen”

Soloa Etxean bizi da Juan Kruz Igerabide idazle adunarra. Asko idatzi duen arren, haur literaturan egin duen lanagatik batez ere, ezagutzen du irakurle askok. Haur literaturan gainera, arlo berezia landu du: poesia. “Begi-niniaren poemak” eta “Egun osorako poemak” dira arlo horretan argitaratutako bi liburuak. Idazle adunarra aspaldi konturatu zen haurrek, ezagutu eta dastatzen erakutsiz gero, poesiarako sentsibilitatea badaukatela.

Urte batzuk barru horrelako lanek beren fruitua eman dezaketela pentsatzen dugu, izan ere gaur egun Euskal Herrian nahikoa gutxi dira poesia irakurtzen dutenak. Haurrentzako ipuin batzuk lantzen aurkitu genuen elkarrizketa eskaini zigun egunean, beste poesia liburu bat ere buruan darabilen bitartean. Bestalde, Durango azokan ikusi ahal izan dugu bere azken lana: “Denboraldi bat ospitalean” ipuina.

Juan Kruz Igerabide Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologia saileko irakasle da duela lau urtetik hona. Lehenago ere ordea, irakaskuntzan urte asko egin ditu. Hain zuzen ere, haurrei eskola ematen zieneko oroitzapen gozoak dauzka gordeta. Orduan hasi zen eskolan haur literatura lantzen: idazten eta bere ikasleei ezagutzera ematen. Helburu pedagogikorik gabe hasi zen haurrentzako idazten, baina ofizioak baliabide gehiago eman zizkion eta haurrentzako poesia argitaratzen hasi zen, lagunei erakutsi eta animatu ondoren.

Atzerriko lanak ezagutzen hasi zen jarraian. Japoneko poesia tradizionalak, *Haikukak* deiturikoak, bere lanerako are baliabide gehiago eman zizkion, eta gaur egun bete-betean ari da arlo hori lantzen: “Barne egoera berezia ari naiz urte hauetan bizitzen. Hasi zen bezalaxe, egu-

nen batean amaituko dela pentsatzen dut”, esan digu, baina momentuz beste pentsamendurik ez dauka. Nobelaren bat idazteak erakartzen ez ote duen galdetu diogu orduan. “Horretarako dei berezirik ez dut oraindik sentitu” erantzun digu.

“Haurtzarora da benetako aro estetikoak”

“Haurtzarora aro magikoa da - gaineratu digu- benetako aro estetikoak nire ustez”, eta hala da; idazle asko itzultzen dira haurtzarora aro berezi horrek eskainiko dien erreferentzien eta estetika bereziaren bila. Juan Kruzek berak, haur literatura lantzen ari denetik, bere haurtzarora, bere langunena, gurasoena berpizteko aukera izan du.

Erritmoa eta irudia


Haurrentzako poemek badituzte berezko ezaugarriak: “Nik bi osagai hartzen ditut aintzakotzat: erritmoa eta irudia”. Erritmoaren bitartez haur txikiengana irits daiteke errepikak sortuz eta poemak ia kantuk bilakatur; jolasa azken finean. Koskortuagoei irudi beteagoak eskeintzen dizkie. Horrezaz gain, umoreak beti izaten du toki berezia haur literaturan.

Adunarrak haurrek poesia era naturalean hartzen dutela ikusi du: “Poesia dastatzen erakutsi behar zaie”. Zalantzarik gabe, heldutakoan poesiarekiko lotura estuagoa izango dute horrela haurrek. Poesia gutxi irakurtzen da normalean, izan ere horretarako sentsibilitate berezia behar da. Ez berezkoa, irakurtzearen poderioz barneratzen den sentsibilitatea, alegia. “Gaur egun telebistak estimulu deigarritz betetako irudiak eskaintzen dizkie haurrei, su artifizialak bezala, irudimena beste era batera lantzen dute -azaldu digu- eta poesia eta lirikotasuna landu ezean, antzu geratzen da irudimenez zati bat”.

**Helduak liluratu
dituen haurrentzako
poema liburua**



Begi-niniaren poemak hurrei irakurtzeko poemak dira. Hala ere, liburuak heldu asko erakarri ditu. Bere sinpletasunak eta aldi berean bere indar liriko handiak erakarri ditu, ziur aski. Askorentzat poesiara egindako lehen hurbilketak izan da. Jorratu gabeko arloa landu du Igerabideak. Gerora beste batzuk izan dira. Baina oraindik ere aukera asko eskaintzen duen esparrua da. Euskal Herriko ahozko tradizioak, Igerabideren esanetan, horretarako aukera handiak eskaintzen ditu. Oraindik deskubritu gabeko altxorra omen.



Euskal Herrian egiten den literaturaz hitz egin dugu azkenik: "Lotsik gabe ibiltzeko moduko lanak ari dira sortzen. Estatu mailan behintzat, alde handirik dagoenik ezin daiteke esan". Itzulpenei dagokienez, bide komertzial berriak ireki behar direlakoan dago: "Orain arte, idazle batek sekulako arrakasta lortu duelako, eta bere kasa sekulako ahalegina egin duelako itzuli dira euskal lanak, Bernardo Atxagaren liburuak adibidez".

Poesia idazten hasi zen Igerabide eta horretan jarraitzen du haurrentzako ipuinekin tartekatuz: "Literaturaren erdigunea da poesia. Narratiban ere zati poetikoenak dira mamitsuenak". Poesiak eta haurren mundu magikoak erabat liluratuta daukala esango genuke Juan Kruz Igerabide idazle adunarra.

Haur literaturaren merkatua

Juan Kruz gazte hasi zen idazten: 21-22 urte zituela. 28 urte zituela argitaratu zuen lehenengo liburua, poesia liburua, sari bat irabazi ondoren: *Notre-Dame-ko oihartzunak*. Geroztik *Bizitzarako solasean* eta *Sarean leibo* poema liburuak argitaratu ditu. Azken urteotan haurrentzako ipuin ugari plazaratu ditu, halaber. Bestalde, Euskal Herrian haur literatura inoiz ez bezalako oparotasuna agertzen ari da: "Egia da asko argitaratu dela -esan digu Juan Kruzek- zabarkeria pixka batez ere jokatu da askotan; beharra

zegoen eta nahikoa erraz argitaratu dira lan berriak nahiz itzulpenak. Gaur ordea, maila altua ezarri da, eta lanak eta argitalpenak asko zaintzen dira". Bestalde, azken urteotako liburuen merkatua haur literaturan dagoen arren, idazleak horregatik, ez direla aberastu esan digu.

"Lotsik gabe erakusteko moduko lanak ari dira Euskal Herrian sortzen"

AUTOEN MEKANIKA OROKORRA
ZABALAGA TAILERRAK
Ama Kandida Etorbidea. DENAC Poligonoa, 203. Pabeloia
Telefonoa 30 01 69 - ANDOAIN

Joxe Ramon
TABERNA
PINTXO EDERRAK !!
Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

BENITO
HARATEGIA
URDAITEGIA
Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50
BILLABONA

EMBITIDOS
ORMAKI
URDAITEGIA
TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA
ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

KARROZERIAK LAGUNAK
TXAPA ETA PINTURA
EGA ZERBITZU OFIZIALA
FURGOI ISOTERMIKOAK
HOZKAILUAK
SORABILLA AUZOA - 53. POLIGONOA - ☎ 59 44 48 - ANDOAIN

AURRERA
TABERNA
Giri orik ederrena gazteriarentzat!!
ZIZURKIL

ADUNAKO JAIAK. 1940



Abuztuan Ama Birjiña egunean ospatu ohi dituzte adunarrek herriko jai nagusiak. Eta ospakizunen artean, zalantzarik gabe, oilasko jokoak izan ohi du estimazioziorik eta harrerarik onena herriarren artean.

Oilasko joko egunekoa da honako argazki hau, **1940-45 bitartekoa**. Argazkian agertzen diren bi adunarrak berriz, oso ezagunak izan ziren eta dira oraindik ere bere bizilagunen artean: **Gaintzabekoa baserriko Pedro Lazkano** da emakumez jantzita panpinari eusten diona **eta astoa lepotik hartuta daukana Ariztiko Joxe Manuel Ezeiza** da.

Garai batean beste gazte batzuekin batera berriek antolatu ohi zituzten jailetako gora-behera guztiak. Antolatzaile bikainak izateaz gain, jai giroa eta parranda beste inori baino gehiago gustatzen zitzaizkien ospea izan dute beti herrian, **Joxe Manuel Ezeiza zenaren alarguntsak, Maria Iraolak** ederki asko adierazi digunez.

Garai batean oilasko jokoari ekin aurretik herriko gazteak atez ate ibiltzen ziren diru eske. Mutilak baino ez ziren horrelako eginkizunetan ibiltzen. Geroxeago emakumezkoak ere gehitu zitzaizkien. Orduan ordea, neskarik ez, eta bikote honi emakumezkoen jantziak soinean jarrita, hutsunea betetzea bururatu ote zitzaien susmoa daukagu. Susmoa besterik ez, alabaina.

LANBIDE EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAKETAK

GASA ETA BEROGINTZA

KALE NAGUSIA, 59 - ☎ 59 38 44
ANDOAIN

- ITURGINTZA
- GASA
- BEROGAILUAK
- ELEKTRIZITATEA
- IGELOTSARITZA


07SAB9

Etxebizitzen saleroketa

Kale berria, 58 ☎ 69 08 94
BILLABONA

JEXUX MARI IRAZU

Asteasuarra; 33 urte; langilea



- Bidaiatzea omen da zure zaletasunik gogokoena?

- Bai, balaxe da. Europa aldean Eskozian, Irlandan eta Suitzian ibilia naiz. 1990. urtean Monakora abiatu nintzen bizikletaz beste lagun batzuekin, baina lagun batek istripua izan zuen eta itzuli egin behar izan genuen.

- Bizikletan egin al duzu beste horrelako saiorik?

- Orain dela urtebete pasatxo New Yorketik Los Angelesera, itsasertzetik itsasertzerantz herrialdea bizikletaz zebarkatzeko saioa egin nuen. Hilabetean egiteko asmoa neukan. Hala ere, sasoi ona izan arren, bakarrik nengoan, psikologikoki gogorregia egin zitzaidan eta utzi egin nuen. Gainera, inguru baietan bizikletaz bidaiatzea oso arriskutsua da, trafiko handia dago, eta bertakoek errepidean bizikletaz ibiltzeko obiturarik ez daukatenez, gidariek ez dituzte txirrindulariak batere errespetatzen.

- Eta orain dela urtebete zure aspaldiko ametsa bete zenuela uste dut?

- Bai, lana utzi eta Australian eta Zelandan Berrian izan nintzen. Autobusez ibili nintzen han, bakarrik baita ere. Bi hilabete eman nituen, eta esperientzia ezin hobea izan zen. Lana aurkitu eta bertan denboraldi luze samarra egiteko asmoa neukan, baina bisatua lortzea ez da erraza: lana izan behar duzu eta nabikoa diru daukazula frogatu. Garai batean jendea oporrak igarotzera joan, lana aurkitu eta erraz geratzen zen bertan. Gaur egun kontrola askoz ere zorrotzagoa da.

- Nolakoa da hango bizimodua?

- Hemengoarekin alderatuz askoz ere lasaiagoa. Bizi maila ona eta berdintsua daukate herritar gehienek. Ez da eskalerik kalean ikusten, eta ia ez dago lapurretarik.

- Euskaldunik topatu al zenuen?

- Bai, ezuste pozgarria izan zen. Orain dela berrogeiren bat urte azukre kainabera moztera abiatu ziren euskaldun asko Australiara. Gero tresneria modernoa erabiltzen hasi zirenean lanik gabe geratu ziren asko eta jaioterrira itzuli ziren. Baina oraindik zortziren bat familia edo geratzen dira. Gernikako Iturbetarrekin egon nintzen bertan.

- Itzultzeko asmorik, bai?

- Bai, aurreko urte amaieran itzultzea gustatuko litzaidake. Oraingo honetan zorte hobea izatea espero dut. Lagun gernikarrak bertan izateak lagunduko didala uste dut.

- Lanik ba al dago?

- Bai, arlo guztietan dago lana, oso lurralde aberatsa baita. Eta gainera, nabiko ongi irabazten da.

PERTSONAIA EZKUTUA

Pertsonaia ezkutua izeneko lehiaketaren aldi berri bati emango diogu zenbaki honetan hasiera. Pertsonaia ezkutu hau asmatzeak ez dauka, gure ustez, bestelako zailtasun berezirik. Bi arrazoigatik gainera: telebistak oso ezagun bihurtu du eta ingurukoa da.



Andoaingo Zirauna kirol dendak eskaini digu oraingo honetan saria, eta ez nolana hiko gainera: **Euskadiko futbol selekzioko prakak eta kamiseta.** Tira bada, anima zaizte futbolzaleak zeratenak eta ez zeratenak, etxerako ez bada, arropa nori oparitu izango duzue eta!



KIROL JANTZIAK

Zirauna

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎59 44 47

ANDOAIN

ANTZERKIA**ANDOAIN**

Urtarrilak 27: Tanttakaren "Umekeriak" antzezlanak 20.00etan La Salleko antzerki aretoan.

HITZALDIAK**ANDOAIN**

Urtarrilak 26: EAJ-PNVk antolatutako hirugarren hitzaldia "Politika plazara" deituriko egitasmoari jarraituz: **Juan Mari Ollorak "Bake prozesua eta Euskal Herria"** hitzaldia eskainiko du Kultur Etxean 20.00etan.

BESTE**MUSKIL ELKARTEA**

Urtarrilak 20: Ur jolasak Tolosako igerilekuan 8 eta 9 urteko haurrentzat.

Otsailak 10-11/24-25: Candanchura eskiatzera: fondoa eta alpinoa. Izenematea urtarrilak 18 baino lehen Asteasuko Kultur Etxean dagoen Muskilen egoitzan edo telefono honetara deituz: 69 32 13.

MERKATU TXIKIA

Amasa: **Idazteko makina elektrikoa erosiko nuke**, ahal bada memoriaduna. ☎ 69 26 72

SISIFOREN MITOA EDO KALETXIKIKO ALDAPA

Antzinako sinesmen forma hartuz gizakiokin harremanetan bizi diren adiera ezberdineko mitoak daude. Gaur egun, jainko-jainkosei esker, historia, alegia eta esanahi horiek guztiak adierazi egin daitezke, "sorgiñak" Inkisizioaren tribunalaren aurrean jarriko ote dituzten heldurrik gabe, nahiz eta gaur egun ere, inkisidoreak egon, badauden.

Mito asko daude, eta horietako bat Sisiforena da. Jainko-jainkosen agindu itsuekin behin eta berriz behaztopo egiten duen hiritar xumearen patu zorigaiztokoa ematen da bertan aditzera. Goigoikoek Uzturreko maldarik gogorrean zehar harri handi bat bultz egitera zigortzen dute gizarajoa-gajoa, eta gailurrera iristeko puntuan dagoen bakoitzean harri erraldoia maldan behera erortzen zaio behin eta berrero.

Egunerokotasunean murgilduta dagoen hiritarraren xalotasunaren, gogo isilaren eta Administrazioaren jardun aktiboak edo pasiboak eraikitzen duen murriztearen artean sortzen den zentzugabekeriak, Administrazioa hi-

ritarraren zerbitzura dagoela esatea, askotan, mito izaten jarraitzen duela baieztatzen eramatzen du bat baino gehiago.

Kaletxikiko aldapa, izoztuta edota elurtuta, igotzen dudun gutxietan, Sisiforen mitoa datorkit gogora, izan ere gailurrera iritsi baino lehen, hau da Goikoplazara, behin baino gehiagotan erori baino maldan behera, Berrozpera iritsi gabe, baina Sisiforen harriak maldan behera egingo zukeen gisara.

Orain dela egun batzuk Andoaingo gazte batek Kaletxikiko aldapan baranda bat jarri beharko litzatekeela esan zidan, edadeko jendearengan pentsatuz batez ere. Baita Kale Nagusian ere Basterotik hasita, beti ere Goikoplazaraino. Eta beste behin gogoratu nintzen Sisifo zigortu eta gizagaixoaz.

Andoaingo gaztearekin barandaz hitz egiten ari nintzela, kanpotar bat batu zitzaigun. Legealdi bat amaitzen den bakoitzean Sisiforen zentsazio berbera, hau da behin eta berriz maldan behera erortzen den zentsazioa izan ohi duela aitortu zigun, izan ere herriak aukeratutako agintariak behin eta berrero zapuztu ohi dituzte hiritar gehiengoaren nahiak, eta orduan beste behin baikor igo beharra dago hautestontziraino. Arriskuak merezi duela, eta garrantzisuena gailurrera iristea dela esanez animatu ohi dugu hiritarra orduan.

Mitoak badu beti alderdi utopikoa, txiki edo handia, misterioitsu eta eskuraezina. Behin barandaz jarri eta gero, aldapari buruzko mitoa behinik behin, desagertu egingo da, hutsala bilakatuko baita, eta domino jokoan gertatzen den bezala, behar bada, hiritarraren eta edozein Administrazioaren artean beste aldapa eta murrizte guztiak desagertuko dira. Azkenean, gauzak ez dira horren zentzugabeak eta gogorak izango; erreala go, eskultura eder bat izango da, erabateko sinboloa. Hori uste dut nik, behintzat.

Begoña Gil Etxeberria

Josetxo Maraña

ZER GERTATZEN DA ASTEASUKO BASERRI BABESTU ETA ZENTRU SOZIALAREKIN?

Gure herrian irrikitan itxaroten genuen joan zen abenduaren 3an egindako inagurazioak, bertan eskainiko diren zerbitzuen berehalako martxan jartzea esan nahi zuela uste nuen, baina egunak badoaz, eta atekak itxita aurkitzen ditut.

Etxearen birgaitze obren finantzaketa Foru Aldundia eta Udalaren artean banatuta egon da. Gipuzkoako Foru Aldundiak (Gizarte Zerbitzuen departamentua), obra hau aurrera bultzatu zuen Gipuzkoan ezaugarri honetako lehenengo etxea zelako Asteasun burutu beharrekoa. Ezaugarria zertan datza: etxe berdin batean baserri babestua eta gizatalde desberdinak (gazteak, emakumeak, zaharrak, elbarriak e.a.) elkartzeko aukera ematen zuen zentru soziala elkartzeko zirelako. Hau horrela izateko beharrezkoa zen udaletxeko departamen-

tu desberdinen (gizarte zerbitzuak, kultura). Foru Aldundiaren eta herritarren partaidetza egotea, bai araudien eraketan eta baita bertako aktibitateen antolaketa ere parte hartuz.

Zertan gelditu da proiektu hau? Noretzat edo zertarako izango da etxe hau?

Nere zalantzak dauzkatzat gaur egun Udaletxea zuzentzen duten politikoei etxea benetan birgaitu zen proiekturako erabiliko ote duten, zeren etxearen izena erabakitzeko erabili duten sistema berdinez jokatzeko jarraitzen badute, (Alkatearen kalitateko botoa erabiliz), era berean erabaki dezakete etxeak zein funtzio betetzea nahi duten, edo komenigarria den edo ez etxeak ongi funtzionatzea.

Zure kirol denda

KIROLAK EDURNE

Kaletxiki 6, - ☎ 59 19 58 ANDOAIN

Kirola egiteko behar duzun guztia



GORE-TEXeko erropak eta botak

IGLU dendak

Mendirako behar duzun guztia

GORE-TEX

ARTIACH

ALFARO

j a t e t x e a

Etxeberrieta auzunea ☎ 59 40 27 ANDOAIN



ADI LAGUNOK

*Euskalduna futbol
taldeak kanpoan
jokatzen duen egunetan
itxi egingo dugu*



JOSEBA

Altzariak

Kaletxiki 6, Fax eta Telf. 59 07 61
ANDOAIN



AITZBELTZ



Arteta kalea 1 eta 3 - ☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45 ANDOAIN

ELEKTRATRESNAK

SUKALDERAKO ALTZARIAK